

2019KO AZAROAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hemeretzia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak laurden gutxi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

BILDUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

1.- AURREKO AKTA. 2019ko urriaren 31ko aktaren onespena.

2019ko urriaren 31ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- Beasaingo Trenbide kaleko obrei dagozkien 4. obra-ziurtagiria (2018PROB0005).

Lurralde Batzordeak proposatuta, aho batez onartu da “**Trenbide kalea berrurbanizatze**ko” obrei buruzko obren 4. ziurtagiria, **95.042,52 €**koa (BEZ barne).

- Erauskin plaza birmoldatzeko obraren likidazioa (2018PROB0003).

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du Lurralde Batzordean aipatutako obraren desbideraketari buruzko txostena ea egina dagoen. Txosten hori egitea eta eskuratzea eskatu du.

Obra ziurtagiriarekiko bozketa eginda, aho batez onartu da, “**Erauskingo plaza berrurbanizatzeko**” obrei buruzko 10. obra-ziurtagiria, hain zuzen ere, likidazioa. Obra ziurtagiri horren kopurua, **151.320,65 €**koa (BEZ barne).

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu) eskatu du, aparkalekurako erabiltzen den Bernedoeneako terrenoari buruz Duque del Infantadorekin dagoen alokairu kontratua helaraztea eskatu du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.